




1.ALDIA

1.- Zenbat 4 zifrako zenbaki daude, beraien zifren batura 33 baino handiagoa dela jakinda?

2.- Ondoko irudian ikus dezakezunez 5x5 karratu batean beltzez pintatuta daude laukitxo batzuk. Laukitxo bakoitzak cm^2 bat baldin badauka:



- a) Margotu gabe geratzen den azalera zenbat cm^2 neurtzen du?
- b) Karratua 7×7 izango balitz galdera berberari erantzun.
- c) Eta karratua $n \times n$ izango balitz (n zenbaki bakoitia izanik)? Idatzi n -ren arabera margotu gabe geratzen den azalera

3.- Nerea eta Ion ondorengo jokoa jolasten ari dira:

Hasieran fitxa batzuk daude lerro ezberdinetan kokatuta. Jokalari bakoitzak, txandaka, fitxa bat edo batzuk har ditzake, baina lerro bakar batetik. Azken fitxa hartzen duenak irabaziko du jokoa.

Beti hasiko da Ion

- a) Hemen duzu hasierako posizioa: Hiruna fitxa bi lerrotan Azaldu nola irabaz dezakeen Nereak beti, Ionek egiten duena egiten duela.
- b) Beste hasierako posizio honekin, azaldu nola Nereak ere irabaz dezakeen beti.


4.- Hona hemen kubo baten 6 aurpegiak:



Eta hemen duzu kubo hiru ikuspuntutik ikusita.



a) Ondorioztatu aurpegi bakoitzaren posizioa besteekiko eta margotu ondorengo sarean



b) Eta sare berean ipini erpinetako letrak dagozkien lekuetan